

Irungo Hizkuntza Eskola Ofizialeko alemaneko B2.1 mailako ikasleak gara eta idatzi honen bitartez Hezkuntza Sailak alemaneko hezkuntza eskaintzaren inguruan hartutako erabakiak ikasleengan eragindako haserrea eta ezinegona azaldu nahi ditugu. Aurreko ikasturtean indarrean sartu zen dekretuaren ondorioz, ikasketa mailak berrantolatu behar izan ziren, eta horrez gain, alemaneko mintegiko bi irakasleetako baten lanaldia erdi batera murriztu zen, B2.2 maila eskaintzeko aukera kenduz. Hala ere, Irungo Hizkuntza Eskola Ofizialean eman diren aldaketa guztien aurrean ikasle zein irakasleek jarrera eredugarria erakutsi dugu, betebeharrak guztiak errespetatuz eta eskakizun guztiak betez. Honez gain, bi irakasleek esfortzu, inplikazio eta dedikazio ukaezinak erakutsi dituzte, bi pertsonaz osatutako mintegi batean ikasketa mailak dekretu berrira egokitzeak lan zamaren bikoizketa eragin badu ere. Dirudenez, erabakiak hartzen dituztenek ez dute bi ikasle hauen lana baloratu. Izan ere, matrikulazio kopuru minimoa lortu eta alemaneko talde guztiak aurrera atera arren, Hezkuntza Sailak berriro ere murrizketak egitea erabaki du. Horrela, lanaldi osoa duen irakasle bat eta lanaldi erdia duen beste bat izan beharrean, lanaldi osoa duen irakasle bakarra egongo da alemaneko ikasketa maila guztietarako.

Erabaki honek eragin zuzena dauka ikasleengan, alemaneko mintegian ikasle bakarra egoteak eskaintza akademikoa murrizten baitu, ikasleak Donostiako eskolara lekualdatzera behartuz. Ikasketak, lana, edota arrazoi ekonomikoak direla-eta, lekualdatze hau ezinezkoa egiten zaigu ikasle askori. Gainera, alemaneko talde guztiak mantentzeko ikasle kopurua nahikoa dela kontuan izanik, Hezkuntza Sailak hartutako erabakia ulertezina iruditzen zaigu. “Ez dago diru nahikorik” esaldia nahiko zaharkituta geratu da, denok baitakigu diru nahikoa badagoela, boterean dauden horiek nahi dituzten gauzetarako.

Ez dugu amore emango, gutxienez, aurreko ikasturtera arte genuena berreskuratu arte: lanaldi osoa duen alemaneko irakasle bat eta lanaldi erdia duen beste bat, ikasleok alemaneko B2.2 maila arte ikasteko aukera izan dezagun. Egia esanda, ez dugu uste gehiegi eskatzen ari garenik.